

KONTROL MOZIOA

Basque Culinary Centerrek Manteon eraiki nahi duen Goeri buruzkoa

Juan Carlos Izagirre Hortelano EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2023ko irailaren 18an Ogasuneko Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Hilabete batzuk badira jakin genuenetik Basque Culinary Centerrek (BCC aurrerantzean) bere beharrak asetzeko bigarren eraikin bat eraikitzeko lur eremu bat eskatua ziola Donostiako Udal Gobernuari. Aste batzuk geroago jakin genuen, eta baieztatu zitzaigun Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean, Udal Gobernuak erabaki zuela lur eremu hori Manteokoa izango zela, zehazki AU.01.Manteo, 01.04.Okendoalde azpideremua.

Berriak kalapita handia eragin du Ulia eta Grosen eta Donostian oro har, eta auzitan jarri dira hautatutako eremua zein instituzioek aurreikusitako ekarpen ekonomikoa.

Hilabeteotan, hainbat bilera eskatu eta egin ditu EH Bilduk BCCko zuzendaritzarekin eta hainbat eragile eta elkarterekin. Denekin hitz egin eta gero, posizio politikoa azaldu die modu pribatuan aipatutako eragile eta elkarteei zein BCCri, eta publikoki prentsari, udal batzordeetan eta udalbatzarrean. EH Bilduk aitortzen du BCC eragile garrantzitsua bihurtu dela Donostian eta Gipuzkoan. Erreferentzia ere bihurtu da bere arloan eta ezaguna da munduko leku askotan. Egiten duen lana goraiatu nahi dugu eta, era berean, jarraituko dugu geure ekarpenak egiten eta iritzia ematen egindakoak hobetu ahal izateko (euskara, Euskal Herriaren erreferentzialtasuna...)

EH Bilduren ustez, eraikin berria eraikitzeko prozesua ez da gardentasunez egin, ez da prozesu parte hartzailearik antolatu, Udal Gobernuaren bulegoetan erabaki da eta aldaketarako aukerarik gabe ezarri nahi da. Ez da auzotarrekin eta inguruko eragileekin inolako lanketarik egin proiektua aurkezteko, kokapen posibleak alderatzeko, onurak eta kalteak aztertzeko, zer hobetu zitekeen jakiteko...

Horrek guztiak haserrea piztu du eta herritar asko proiektuaren aurka agertu dira. Aurkeztutako alegazioak, epaitegietan tramitazioan dagoen errekurtsioa edota azken hilabeteotako mobilizazioak, horren erakusle. EH Bilduren ustez, Udal Gobernuak ez du kudeaketa zuzena egin; ez da modu irekian egin, herritarrei ez zaie parte hartzeko aukerarik eskaini eta ez da hiri ikuspegi orokorra kontuan hartu.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -


Halako proiektu eta jarduera batek eman dezake horren beharra duten eremuak biziberritzeko aukera, beste auzo batzuk suspertzeko aukera, eta, beraz, aukera galdua dela deritzogu. Hala ere, egoera honetara iritsita, soluzio serioak eta egingarriak planteatu behar dira.

Batzordeetan, Udal Gobernuak ez zuen norabide hori aldatzeko inongo asmorik azaldu.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

- Udaltzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari auzotarren ekarpenak jasotzeko prozesua aktiba dezala, BCCren eraikin berria kokatzeko eremua edozein izanda ere, bertako auzo elkarte, eragile eta auzotarrekin prozesu ireki bat egin eta auzoarentzako onurak bermatuz.
- Udaltzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari partaidetza prozesua abiaraz dezala Gros-Ulian eta Donostiako gainerako auzoetan, kokapen posibleen artean onurak eta kalteak modu gardenean alderatzeko.
- Udaltzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari proiektuaren izapidetzea gelditu dezala, beharrezko partaidetza dinamikak aktibatuz eta aurrera eraman arte.

Donostian, 2023ko irailaren 21ean



Juan Karlos Izagirre Hortelano
EH BILDU udal taldeko bozeramailea